

## MARI PAZ JIMÉNEZ ETA PINTURA

### Ahizpari gutuna

Testua: ELENA OLAVE

Irudiak: IRRIMARRA

BAGARA saila [Zuzendariak: Garazi Ansa, Haizea Barcenilla]

ISBN: 978-84-9172-249-6

Azal gogorreko liburua. 24,5 x 21,5 cm. 44 or.

Salneurria: 16,00 €

- **Gaia:** arte garaikidea eta euskal emakume sortzaileak.
- **Norentzat:** adin guztietarako -8 urtetik aurrera-.
- **Alderdi azpimarragarriak:** sormenaren inguruko hausnarketa, irudimenaren lanketa, emakumea artean bistaratzea, figurazioa eta abstrakzioa espresio modu gisa, arte-lengoaia ezberdinen aurkezpena (ehungintza, pintura...), kolorearen erabilera.



Rosario kuttuna, zer moduz zaude?

Gauzak diren moduan idaztea gustatuko litzaidake  
baina azkenaldian  
objektu batzuk etengabe aldatzen direla sentitzen dut,  
beste batzuk ahitzen.  
Gure bizitzak oraindik poesia behar duela dirudi,  
ez zaizu iruditzen?

*Ahizpari gutuna*, Elena Olaveren hitzen eta Irimarraren irudien elkarlanaren bidez gauzatu den proposamena da. Mari Paz Jimenezen artelanak oinarri hartuta, liburuaren helburua artistaren lana ezagutaraztea da, modu eder eta poetikoan. Mari Paz Jimenez, bereziki pinturan egindako ekarpenengatik ezagutzen den arren, josteta lanetan ere aritu zen, tartean bere ahizpa bailaora Rosariorrentzat jantziak eginez.

Irakurleak, Mari Pazen sormen prozesuaren hausnarketetan murgiltzeko aukera izango du ahizpari idazten dion fikziozko gutunaren bidez, artistak landutako estilo anitzetara hurbiltzen gaituzten irudien laguntzaz.



### MARI PAZ JIMÉNEZ

(VALLADOLID, 1909 - DONOSTIA, 1975)

Euskal artista miretsi eta aitortua izan zen, herbestean Argentinan zegoela artea lantzen hasi ostean, Donostia eta Bilbo artean kokatu zena. Bertan bere ijito jatorriari aipamena egiten zioten irudiak lantzen hasi zen, eta esperimentazioari jarraiki, 50. hamarkadaren amaieran Euskal Herriko lehen pintura abstraktua burutzen hasi zen.

### Elena Olave Duñabeitia

Artearen Historia ikasi zuen eta arte garaikidearekin eta komisariotzarekin lotutako ikerketan jardun du espazio eta modu ezberdinetan. Idazketarekin lotura oso estua du; besteak beste, Berria egunkarian arte kritikak idatzi ditu. Halaber, literatur esparruarekin harreman zuzenagoa duten argitalpenak ere egin ditu: Balea Zuria argitaletxearekin «Zeldak» poesia liburua argitaratu zuen 2019an, Lauaxeta Saria eskuratuz; eta 2022ko udazkenean, «Keinura itzuli» poesia liburua Susa argitaletxearekin.



### Irimarra

Irimarra bikote sortzailea, **Irene Irureta** (Zumaia) eta **Karmele Gorroñok** (Galdakao) osatzen dute. Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren ikasketak burutzen ari zirela ezagutu zuten elkar. 2016. urtean, lan kolektiboaren alde apustu egin zuten irrimarra sortuz. Geroztik hainbat album ilustratu dituzte, hauen artean aipagarrienak: "Altzoko Handia" 2018-20 (sei liburuen bilduma) Koldo Izagirre-Erein argitaletxea; "Erakusleihoan" 2019 (Peru Abarka Saria) Karmele Mitxelena-Erein argitaletxea; "Badauzkat nirezulotxoan..." 2020 Alaine Agirre-Ikaskelkar argitaletxea; "Kui" 2020 Fito Rodriguez-Txalaparta argitaletxea eta "Tristura" 2021 Joseba Sarrionandia-Ikaskelkar argitaletxea. Horma-irudiak, prensa kolaborazioak, eskola agendak eta kartelak ere burutzen dituzte. <https://www.irrimarra.com>

